

I. ERANSKINA: ARLOAREN, JAKINTZAGAIAREN EDO EREMUAREN URTEKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA EGITEKO TXANTILIOIA

Urteko programazio didaktikoa

Ikastetxea:	Lauro ikastola	Kodea:		Ikasturtea:	2024-2025
Etapia:	DBH	Zikloa/maila:	1.zikloa. 1.maila (1.DBH)		
<ul style="list-style-type: none"> • Arloa/Jakintzagaia: • Eremua: • Diziplinarteko proiektua • Bestelakoak 	Natura Zientziak	Irakasleak:	Ainhoa Fernandez Elorrieta Amaia Perez Etxebarria Josune Anasagasti Katalin Arrien Querejeta		

Programazio didaktikoaren justifikazioa

Programazioan garrantzitsuak diren erabakiak argudiatzea eta, horretarako, honako alderdi hauek kontuan hartzea: ikasleen abiapuntua, ikasgelaren testuingurua, ikastetxearen proiektuak, urteko memoriatik eratorritako hobekuntza proposamenak, etab.

Lauro Ikastola Loiun kokatzen den D ereduko ikastola kontzertatua da. Herri onurako gurasoen kooperatiba bat da, hortaz Lauro osatzen dugunok gizartea hobetzeko asmoz lan egiten dugu, eta ikastolako ondarea Eusko Jaurlaritzarena da. Jatorriz Bilbokoa izanik, gaur egun Bilboko, Eskuinaldeko eta Txorierri zonaldeko ikasleei arreta ematen diegu, hiru zonaldeen arteko oreka bat mantenduz.

Lauro Ikastola osatzen dugunon lana da ikaslea ezagutzea, bere ahalmenak identifikatzea eta duen potentzial horri ahalik eta gehien ateratzen saiatzea. Horretarako kurrikulum propio eta aberats bat diseinatu dugu, bakoitzak bere tokia aurki dezan horren barnean, beti ere gure ustetan ikasleentzako hoberena izan daitekeena erabakiz. Euskal tradizio eta kulturaren oinarrituz, ikasleek euskaraz ikasi, landu eta eguneroko bizitzarako erabil dezaten sustatzen dugu. Heziketa hau, pertsona ardatz bezala hartuta, giza-eskubideen errespetuan eta gizarte demokratiko batean ezaugarri diren hiritar baloreetan oinarritua dago. Pertsona aske, erantzule, konpetente, tolerante eta solidarioak izan, eta euren inguru eta munduaren hobekuntza parte hartzeko prest egon daitezen bilatzen dugu. Proiektu euskaldun, eleanitz, dibertsifikatu eta berriztatzaile honen ezaugarri dira ikaslearen jarraipen pertsonalizatua, aniztasunaren trataera eta kurrikulumaren aberastasuna, ikasleari bere bizitzako egungo eta etorkizuneko erronkei aurre egiteko

konpetentziak lortzen laguntzeko. Gure Plan estrategikoan definitutako lerroen garapena Urteroko Planean zehazten dugu, eta urtero proiektu pedagogikoaren atal desberdinetako hobekuntza lerroak definitzen ditugu.

Ikastolako proiektu pedagogikoarekin harreman zuzena duen Lauro 2030 Agenda-planan, Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH) lortze aldera, GJHen 4.7 helmuga (Ikasle guztiek garapen jasangarria sustatzeko beharrezkoak diren ezagutza teorikoak eta praktikoak eskuratzen dituztela ziurtatzea, besteak beste, garapen jasangarrirako eta bizi-estilo jasangarrietarako, giza eskubideetarako, genero-berdintasunerako, bakearen eta indarkeriarik ezaren kulturaren sustapenerako, munduko herritartasunerako eta kultura-aniztasunaren baloraziorako) ikasleekin lantzea finkatuta dugu. Helburu hori lortzeko, 2030 Agenda-planan, zenbait ekimen zehaztuta ditugu GJHak gure kurrikulumean txertatuz.

Natura Zientziak jakintzagai honi dagokionez, hauek dira landuko ditugun GJHak:



Natura Zientziak jakintzagaia Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan antolatzen da, Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezagutza arloan garatutako Lehen Hezkuntzako ikasketa zientifikoaren jarraipen gisa, baina planteamendu bereziagoarekin eta sakontze-maila handiagoarekin. 2024-2025 ikasturtean Natura Zientziak ikasgaia derrigorrezko ikasgaia da eta bost taldetan banatzen dira ikasgaiaren orduetan. Zientzia naturaren errealitatearen ulermena eta azterketa enpirikoa ezaugarri duten jakintzen multzoa da, hala nola, materia, izaki bizidunak beren alderdi anizteta, antolaketa-mailetan eta harreman-sareetan; funtsezko ga-koetako bat da ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-erronka berrietarako soluzioak aurkitzeko, eta garapen jasangarria eta gizarte berdeagoak bultzatzeko.

Zientziaren ezagutzak ikasleei ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak ematen dizkie errealitate naturala ulertzeko, eta gizartearen eta ingurumenaren hobekuntzan eragina duten ekintzetan eta erabakietan parte hartu ahal izateko, garapen zientifiko, teknologiko, ekonomiko eta sozial etengabe dagoen mundu batean oinarritutako irizpidearen arabera, non emakumeen eta gizonen ekarpenak baloratuko diren.

Natura zientziak jakintzagaiaren curriculum-garapenak konpetentzia-esparruari erantzuten dio; eta beraz, funtsezko konpetentziak garatzen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako definitu diren etapa-helburuetan laguntzen du. Bi elementu horiek jakintzagaiaren konpetentzia espezifikoetan zehazten dira, hau da, ikasleen irteera-profilean laguntzeko elkarrekin erlazionatuta eta definituta dauden konpetentzien multzo batean, eta horiek curriculumeko beste elementuak justifikatzen dituzte: oinarrizko jakintzak eta ebaluazio-irizpideak. Horiek guztiek edukien memorizazio hutsetik haratago doazen funtsezko konpetentzien garapena ziurtatzen dute, ikasleak gaituak izan daitezen eta, beraz, pentsamendu zientifikoa garatzeko gai izan daitezen XXI. mendeko gizartearen arazoei eta erronkei aurre egiteko eta munduaren ezagutza sakonagoa lortzeko. Jakintzagai honen planteamenduaren helburua da ikasleek ezagutzea jakintza zientifikoaren hainbat esparrutan berdinak diren oinarrizko ideiak eta ikerketa-prozedurak daude.

Memoriatik eratorritako hobekuntza proposamenak:

Aurten, DBH-ko lehenengo mailan, eremukako ikaskuntza ezarri dugu ikaskuntza-metodologia gisa. Aldaketa honen helburu nagusia hezkuntza aktibo eta parte-hartzaileagoa sustatzea da. Eremuka antolatutako ikaskuntzak ikasleek funtsezko gaitasunak garatzea ahalbidetzen du, baita etorkizuneko erronkei aurre egiteko aukera ere.

Curriculumaren plangintza				
Ikas-egoeren izenburua	Arloak, jakintzagaiak, eremua	Konpetentzia espezifikoak <i>(Adierazi erlazionatutako irteera-profilearen deskriptore operatiboak)</i>	Ebaluazio-irizpideak	Oinarrizko jakintzak
LEHEN HIRUHILEKOA				
Harriz-harri (Geosfera: harriak eta mineralak)	Natura Zientziak	1. Fenomeno eta prozesu natural nagusien kausak ulertzea eta erlazionatzea, arrazoibide zientifikoa, legeak eta teoria	1.1 Eguneroko fenomeno natural garrantzitsuenak azaltzea, printzipio, teoria eta lege zientifiko egokien arabera aztertzea eta adieraztea argudioak erabiliz.	<u>A: Oinarrizko trebetasun zientifikoak eta proiektu zientifikoak:</u> Ikerketa zientifikoaren oinarrizko metodologiak

	<p>zientifikoak eta/edo pentsamendu konputazionala erabiliz, problemak ebazteko edo eguneroko bizitzako prozesuak azaltzeko.</p> <p>HKK1, STEM1, STEM2, STEM4 eta KPSIIS.</p> <p>2. Informazioa identifikatzea, lokalizatzea eta hautatzea, plataforma teknologikoak eta askotariko baliabideak eraginkortasunez erabiliz, zientziekin lotutako galderak banakaf zein elkarlanean ebazteko.</p> <p>HKK3, STEM4, KD1, KD2, KD3, KD4, KD5 eta KPSII4.</p> <p>3. Informazio eta datu zientifikoak interpretatzea eta transmititzea, eta horiei buruzko argudioak ematea, hainbat formatu erabiliz zientzien</p>	<p>1.2 Prozesu naturalak azaltzea, ereduen eta diagramen bidez irudikatuz, eta, beharrezkoa denean, ingeniariatzako diseinua- ren urratsak erabiliz (arazoa identifikatzea, miatzea, diseinatzea, sortzea, ebaluatzea eta hobetzea), tresna analogikoen eta digitalen bidez.</p> <p>2.1 Modu egokian eta moldakorrean lan egitea askotariko baliabideekin, baliabide tradizionalekin eta digitalekin, gaiak ebaztean, informazioa kontsultatzean eta edukiak sortzean, iturri fidagarrienak irizpidez hautatuz eta behar bezala aipatuz.</p> <p>2.2 Informazioa oinarri zientifikoarekin aztertzea, sasizientzietatik, gezurretatik, funtsik gabeko sinesmenetatik eta abar bereiziz, eta horien aurrean jarrera eszeptikoa edukiz.</p> <p>2.3 Eraikuntzako eta hezkidetzako elkarrekintzak ezartzea, jarduera zientifikoetan kolaborazio-lanaren berezko estrategiak erabiliz, aniztasuna errespetatuz eta inklusioa bultzatuz.</p> <p>3.1 Kontzeptuak definitzea, eta fenomeno eta prozesu zientifikoak deskribatzea, informazioa hainbat formatutan aztertuz (ereduak, grafikoak, taulak, diagramak,</p>	<p>Galdera, hipotesi eta aieru zientifikoak.</p> <p>Informazioa bilatzeko eta kolaboraziorako estrategiak: tresna digitalak eta zientzian maiz erabiltzen diren formatuak (aurkezpena, grafikoa, bideoa, posterra, txostena, etab.).</p> <p>Informazio zientifikoko iturri fidagarriak: errekonozimendua eta erabilera.</p> <p>Gai zientifiko jakin bati erantzuteko saiakuntzak eta landa-lana, tresnak eta espazioak (laborategia, ikasgelak, ingurunea...) modu egokian erabiliz. F</p> <p>enomeno naturalak behatzeko eta horiei buruzko datuak hartzeko metodoak.</p> <p>Emaitzen analisisa pentsamendu logiko edo konputazionalaren bidez.</p> <p>Prozesuen, emaitzen edo ideien komunikazioa formatu analogiko edo digitaletan (aurkezpena, grafikoa, bideoa, posterra, txostena...).</p> <p>Espazio bakoitza erabiltzeko arauak, horrela norberaren eta komunitatearen osasuna, sareetako segurtasuna eta ingurumenarekiko errespetua ziurtatuz eta babestuz.*</p>
--	--	---	--

		<p>kontzeptuak eta prozesuak aztertzeko.</p> <p>HKK1, HKK2, HKK5, STEM4, STEM6, KD2, KD3 eta KAKK4.</p> <p>4. Behaketak galdera moduan adieraztea, hipotesiak formulatzea eta hipotesi horiek esperimenezko zientifikoaren bidez frogatzea, eta ikerketa-proiektuak garatzea, metodologia zientifikoaren urratsei jarraituz zientziekin zerikusia duten alderdiak arakatzeko.</p> <p>HKK1, HKK2, STEM2, STEM3, STEM4, STEM6, KD1, KD2 KPSII3, KPSII5, EK1 eta EK3</p>	<p>formulak, eskemak, sinboloak, web-orriak...), jarrera kritikoa mantenduz eta ondorio arrazoituak eskuratuz.</p> <p>3.2. Informazio zientifikoaren modu argian komunikatzea, hizkuntza-egitura, terminologia eta formatu egokiak erabiliz (ereduak, grafikoak, taulak, bideoak, txostenak, diagramak, formulak, eskemak, sinboloak, eduki digitalak...).</p> <p>4.1. Egiazteko modukoak diren galderak eta hipotesiak planteatzea, metodo zientifikoak erabiliz eta fenomeno naturalak azaltzen eta horiei buruzko iragarpenak egiten saiatuz.</p> <p>4.2. Esperimenezkoan, araketa edo ikerketa zientifiko proiektuan lortutako emaitzak interpretatzea, beharrezkoa denean, tresna matematikoak eta teknologikoak erabiliz.</p> <p>4.3. Esperimenezkoaren, behaketaren eta ebidentzia zientifikoaren bidez lortutako informazioa eta ondorioak aurkeztea, formatu analogiko eta/edo digital egokia erabiliz (taulak, grafikoak, txostenak, etab.)</p>	<p>Oinarriko hizkuntza zientifikoaren unitateen sistemen maneio egokia barne.*</p> <p>Zientziekin giza- eta aurrerapenean eta hobekuntzan dituzten mugari historiko eta gaur egungo garrantzitsuetan zientzialariek duten zereginaren eta kultura zientifikoaren balorazio kritikoren jarraibideak.*</p> <p>Geologia</p> <p>Harriaren eta mineralaren kontzeptuak: ezaugarriak eta propietateak.*</p> <p>Harriak sailkatzeko estrategiak: sedimentarioak, metamorfikoak eta igneoak. Harrien zikloa.*</p> <p>Harri eta mineral garrantzitsu batzuk eta/edo inguruneko identifikatzeko metodoak.*</p> <p>Mineralen eta harrien erabilerak: euren erabilera eguneroko materialak eta objektuak fabrikatzeko.*</p>
--	--	---	---	--

<p>Lurraren geruzak: Atmosfera</p>	<p>Natura Zientziak</p>	<p>1. Fenomeno eta prozesu natural nagusien kausak ulertzea eta erlazionatzea, arrazoibide zientifikoa, legeak eta teoria zientifikoak eta/edo pentsamendu konputazionala erabiliz, problemak ebazteko edo eguneroko bizitzako prozesuak azaltzeko.</p> <p>HKK1, STEM1, STEM2, STEM4 eta KPSIIS.</p> <p>3. Informazio eta datu zientifikoak interpretatzea eta transmititzea, eta horiei buruzko argudioak ematea, hainbat formatu erabiliz zientzien kontzeptuak eta prozesuak aztertzeke.</p> <p>HKK1, HKK2, HKK5, STEM4, STEM6, KD2, KD3 eta KAKK4.</p> <p>6. Ekintza jakin batzuek</p>	<p>1.1 Eguneroko fenomeno natural garrantzitsuenak azaltzea, printzipio, teoria eta lege zientifiko egokien arabera aztertzea eta adieraztea argudioak erabiliz.</p> <p>1.2 Prozesu naturalak azaltzea, ereduaren eta diagramen bidez irudikatuz, eta, beharrezkoa denean, ingeniartzako diseinua- ren urratsak erabiliz (arazoa identifikatzea, miaztea, diseinatzea, sortzea, ebaluatzea eta hobetzea), tresna analogikoen eta digitalen bidez.</p> <p>3.1 Kontzeptuak definitzea, eta fenomeno eta prozesu zientifikoak deskribatzea, informazioa hainbat formatutan aztertuz (ereduak, grafikoak, taulak, diagramak, formulak, eskemak, sinboloak, web-orriak...), jarrera kritikoa mantenduz eta ondorio arrazoituak eskuratuz.</p> <p>3.2. Informazio zientifikoa modu argian komunikatzea, hizkuntza-egitura, terminologia eta formatu egokiak erabiliz (ereduak, grafikoak, taulak, bideoak, txostenak, diagramak, formulak, eskemak, sinboloak, eduki digitalak...).</p> <p>6.1 Ekintza jakin batzuek ingurumenean eta izaki bizidunen osasunean dituzten ondorioak ezagutzea, zientzien</p>	<p>C: Interakzioa eta Energia</p> <p>Ekologia eta jasangarritasuna</p> <p>Atmosferaren eta hidrosferaren funtzioak eta horiek Lurreko bizitzarako duten funtsezko egin- kizuna.*</p> <p>Klima-aldaketaren kausak eta horrek ekosistemetan dituen ondorioak.*</p> <p>Ohitura jasangarrien garrantzia (kontsumo arduratsua, hondakinen kudeaketa, ingurumenaren errespetatua...)*</p>
--	-------------------------	--	---	---

		<p>ingurumenean eta osasunean dituzten ondorioak aztertzea, zientzien funtsetan oinarrituz, garapen iraunkorrarekin bateragarriak diren eta planetaren osasun indibiduala eta ko- lektiboa mantentzea eta hobetzea ahalbidetzen duten ohitura arduratsuak sustatzeko eta hartzeko.</p> <p>STEM2, STEMS, KD4, KPSII1, KPSII2, HK3, HK4 eta EK1</p>	<p>oinarriak eta irizpide zientifikoak aplikatuz.</p> <p>6.3 Ingurune hurbilean ohitura jasangarriak proposatzea eta hartzea, norberaren eta besteen jarduerak aztertuz eta norbe- raren arrazoibideetan, eskuratutako ezagutzetan eta eskura dagoen informazioan oinarrituz.</p>	
BIGARREN HIRUHILEKOA				
Lurraren geruzak: Hidrosfera	Natura Zientziak	<p>1. Fenomeno eta prozesu natural nagusien kausak ulertzea eta erlazionatzea, arrazoibide zientifikoak, legeak eta teoria zientifikoak eta/edo pentsamendu konputazionala erabiliz, problemak ebazteko edo</p>	<p>1.1 Eguneroko fenomeno natural garrantzitsuenak azaltzea, printzipio, teoria eta lege zientifiko egokien arabera aztertzea eta adieraztea argudioak erabiliz.</p> <p>1.2 Prozesu naturalak azaltzea, ereduen eta diagramen bidez irudikatuz, eta, beharrezkoa denean, ingeniartzako diseinua- ren urratsak erabiliz (arazoa</p>	<p>C: : Interakzioa eta Energia</p> <p>Ekologia eta jasangarritasuna</p> <p>Atmosferaren eta hidrosferaren funtzioak eta horiek Lurreko bizitzarako duten funtsezko egin- kizuna.*</p>

		<p>eguneroko bizitzako prozesuak azaltzeko.</p> <p>HKK1, STEM1, STEM2, STEM4 eta KPSIIS.</p> <p>3. Informazio eta datu zientifikoak interpretatzea eta transmititzea, eta horiei buruzko argudioak ematea, hainbat formatu erabiliz zientzien kontzeptuak eta prozesuak aztertzeko.</p> <p>HKK1, HKK2, HKK5, STEM4, STEM6, KD2, KD3 eta KAKK4.</p> <p>6. Ekintza jakin batzuek ingurumenean eta osasunean dituzten ondorioak aztertzea, zientzien funtsetan oinarrituz, garapen iraunkorarekin bateragarriak diren eta planetaren osasun indibiduala eta ko- lektiboa mantentzea eta hobetzea</p>	<p>identifikatzea, diseinatzea, diseinatzea, sortzea, ebaluatzea eta hobetzea), tresna analogikoen eta digitalen bidez.</p> <p>3.1 Kontzeptuak definitzea, eta fenomeno eta prozesu zientifikoak deskribatzea, informazioa hainbat formatutan aztertuz (ereduak, grafikoak, taulak, diagramak, formulak, eskemak, sinboloak, web-orriak...), jarrera kritikoa mantenduz eta ondorio arrazoituak eskuratuz.</p> <p>3.2. Informazio zientifikoa modu argian komunikatzea, hizkuntza-egitura, terminologia eta formatu egokiak erabiliz (ereduak, grafikoak, taulak, bideoak, txostenak, diagramak, formulak, eskemak, sinboloak, eduki digitalak...).</p> <p>6.1 Ekintza jakin batzuek ingurumenean eta izaki bizidunen osasunean dituzten ondorioak ezagutzea, zientzien oinarriak eta irizpide zientifikoak aplikatuz.</p> <p>6.3 Ingurune hurbilean ohitura jasangarriak proposatzea eta hartzea, norberaren eta besteen jarduerak aztertuz eta norbe- raren arrazoibideetan, eskuratutako ezagutzetan eta eskura dagoen informazioan oinarrituz.</p>	<p>Klima-aldaketaren kausak eta horrek ekosistemetan dituen ondorioak.*</p> <p>Ohitura jasangarrien garrantzia (kontsumo arduratsua, hondakinen kudeaketa, ingurumenaren errespetatua...)*</p>
--	--	---	--	--

		<p>ahalbidetzen duten ohitura arduratsuak sustatzeko eta hartzeko. STEM2, STEMS, KD4, KPSII1, KPSII2, HK3, HK4 eta EK1</p> <p>7. Zientzia etengabe aldatzen eta eboluzionatzen ari den eraikuntza kolektibo gisa ulertzea eta baliioestea, non zientzian diharduten pertsonen parte hartzeaz gain, gizarteko gainerako pertsonen elkarrekintza ere eskatzen duen, aurrerapen teknologikoan, ekonomikoan, ingurumenekoan eta so- zialean eragina duten emaitzak lortzeko.</p> <p>STEM2, STEMS, STEM6, KD4, KPSII4, HK1, HK4 eta KAKK1.</p>	<p>7.2 Ingurunean ingurumen- eta gizarte-premia garrantzitsuenak detektatzea, horiei soluzio jasangarria, sortzailea eta genero-irizpidea kontuan hartuta emanez.</p>	
	<p>Natura Zientziak</p>	<p>3. Informazio eta datu zientifikoak</p>	<p>3.1 Kontzeptuak definitzea, eta fenomeno eta prozesu zientifikoak</p>	<p>B. Materia: Materia bizia eta ez-bizia.</p>

Izaki bizidunak eta zelula		<p>interpretatzea eta transmititzea, eta horien buruzko argudioak ematea, hainbat formatu erabiliz zientzien kontzeptuak eta prozesuak aztertzeko.</p> <p>HKK1, HKK2, HKK5, STEM4, STEM6, KD2, KD3 eta KAKK4.</p> <p>4. Behaketak galdera moduan adieraztea, hipotesiak formulatzea eta hipotesi horiek esperimendazio zientifikoaren bidez frogatzea, eta ikerketa-proiektuak garatzea, metodologia zientifikoaren urratseia jarraituz zientziekin zerikusia duten alderdiak arakatzeko.</p> <p>HKK1, HKK2, STEM2, STEM3, STEM4, STEM6, KD1, KD2, KPSII3, KPSIIS, EK1 eta EK3.</p> <p>5. Zientzien oinarrizko arauak eta jarraibideak</p>	<p>deskribatzea, informazioa hainbat formatutan aztertuz (ereduak, grafikoak, taulak, diagramak, formulak, eskemak, sinboloak, web-orriak...), jarrera kritikoa mantenduz eta ondorio arrazoituak eskuratzuz.</p> <p>3.2. Informazio zientifikoa modu argian komunikatzea, hizkuntza-egitura, terminologia eta formatu egokiak erabiliz (ereduak, grafikoak, taulak, bideoak, txostenak, diagramak, formulak, eskemak, sinboloak, eduki digitalak...).</p> <p>4.4 Esperimendazioaren, behaketaren eta ebidentzia zientifikoaren bidez lortutako informazioa eta ondorioak aurkeztea, formatu analogiko eta/edo digital egokia erabiliz (taulak, grafikoak, txostenak, etab.).</p> <p>5.2 Norberaren eta taldearen osasuna, ingurumenaren kontserbazio jasangarria eta erabilera zientifikoko instalazioekiko errespetua babestea, zientziaren espazio espezifikoen —hala nola zientzien laborategia— erabilera-arauak praktikan jarritz.</p>	<p>Zelula:</p> <p>Zelula izaki bizidunen egitura-unitate eta unitate funtzional gisa.*</p> <p>Zelula prokariotoa eta bere zatiak.*</p> <p>Animalien zelula eukariotoa eta bere zatiak.*</p> <p>Landareen zelula eukariotoa eta bere zatiak.*</p> <p>Zelula moten behaketa eta alderaketa mikroskopioan.*</p> <p>Mikroskopioaren teknikak eta erabilera.</p> <p>Izaki bizidunak:</p> <p>Domeinuak eta erreinuak. Sailkapen taxonomikoaren oinarrizko historia.*</p> <p>Talde taxonomiko nagusiak.*</p>
----------------------------	--	--	--	---

		<p>balidatzea, IUPACen hizkuntza, hizkuntza matematikoa, neurketa-unitate zuzenak eta laborategia segurtasunez erabiliz, hizkuntza zientifikoaren izaera uni- bertsala eta ikerkuntzan eta zientzian hainbat herrialde eta kulturaren arteko komunikazio fidagarriaren beharra aitortzeko.</p> <p>STEM4, STEMS, KPSII4, HK1 eta KAKK2.</p>		
Beste erreinuak: monero, protisto eta onddoak	Natura Zientziak	<p>3. Informazio eta datu zientifikoak interpretatzea eta transmititzea, eta horiei buruzko argudioak ematea, hainbat formatu erabiliz zientzien kontzeptuak eta prozesuak aztertzeko.</p>	<p>3.1 Kontzeptuak definitzea, eta fenomeno eta prozesu zientifikoak deskribatzea, informazioa hainbat formatutan aztertuz (ereduak, grafikoak, taulak, diagramak, formulak, eskemak, sinboloak, web-orriak...), jarrera kritikoa mantenduz eta ondorio arrazoituak eskuratuz.</p> <p>3.2. Informazio zientifikoa modu argian komunikatzea, hizkuntza-</p>	<p>B. Materia: Materia bizia eta ez-bizia.</p> <p>Izaki bizidunak:</p> <p>Domeinuak eta erreinuak.*</p> <p>Talde taxonomiko nagusiak: inguruneko espezieen behaketa eta sailkapena, euren ezaugarri bereizgarrietatik abiatuta.*</p> <p>Osasuna eta gaixotasuna izaki bizidunetan:</p>

		<p>HKK1, HKK2, HKK5, STEM4, STEM6, KD2, KD3 eta KAKK4.</p> <p>4. Behaketak galdera moduan adieraztea, hipotesiak formulatzea eta hipotesi horiek esperimendazio zientifikoaren bidez frogatzea, eta ikerketa-proiektuak garatzea, metodologia zientifikoaren urratsei jarraituz zientziekin zerikusia duten alderdiak arakatzeko.</p> <p>HKK1, HKK2, STEM2, STEM3, STEM4, STEM6, KD1, KD2, KPSII3, KPSIIS, EK1 eta EK3.</p> <p>5. Zientzien oinarriko arauak eta jarraibideak balidatzea, IUPACen hizkuntza, hizkuntza matematikoa, neurketa-unitate zuzenak eta laborategia segurtasunez erabiliz, hizkuntza</p>	<p>egitura, terminologia eta formatu egokiak erabiliz (ereduak, grafikoak, taulak, bideoak, txostenak, diagramak, formulak, eskemak, sinboloak, eduki digitalak...).</p> <p>4.4 Esperimendazioaren, behaketaren eta ebidentzia zientifikoaren bidez lortutako informazioa eta ondorioak aurkeztea, formatu analogiko eta/edo digital egokia erabiliz (taulak, grafikoak, txostenak, etab.).</p> <p>5.2 Norberaren eta taldearen osasuna, ingurumenaren kontserbazio jasangarria eta erabilera zientifikoko instalazioekiko errespetua babestea, zientziaren espazio espezifikoen —hala nola zientzien laborategia— erabilera-arauak praktikan jarritz.</p> <p>6.1 Ekintza jakin batzuek ingurumenean eta izaki bizidunen osasunean dituzten ondorioak ezagutzea, zientzien oinarriak eta irizpide zientifikoak aplikatuz.</p> <p>6.2 Biodibertsitatea babestearen, ingurumena zaintzearen, inguruneke izaki bizidunak babestearen, garapen iraunkorraren eta bizikaltatearen garrantziaz argudiatzea, datu eta arrazoi zientifikoak erabiliz.</p>	<p>Gaixotasun infekziozkoak prebenitzeko eta tratatzeko neurriak, eragile kausalaren arabera, eta izaki bizidunetan antibiotikoen erabilera egokiari buruzko hausnarketa.*</p> <p>Txertaketak gaixotasunen prebentzioan eta bizikaltatearen hobekuntzan duen garrantzia.*</p>
--	--	---	---	---

		<p>zientifikoaren izaera uni- bertsa eta ikerkuntzan eta zientzian hainbat herrialde eta kulturaren arteko komunikazio fidagarriaren beharra aitortzeko.</p> <p>STEM4, STEMS, KPSII4, HK1 eta KAKK2.</p> <p>6. Ekintza jakin batzuek ingurumenean eta osasunean dituzten ondorioak aztertzea, zientzien funtsetan oinarrituz, garapen iraunkorarekin bateragarriak diren eta planetaren osasun indibiduala eta kolektiboa mantentzea eta hobetzea ahalbidetzen duten ohitura arduratsuak sustatzeko eta hartzeko.</p> <p>STEM2, STEMS, KD4, KPSII1, KPSII2, HK3,</p>	<p>6.4 Ohitura osasungarriak eta arduratsuak proposatzea eta hartzea, norberaren eta besteen ekintzak aztertuz (elikadura, higieena, gorputz-jarrera, jarduera fisikoa, pertsonen arteko harremanak, atsedena, pantailekiko esposizioa, estresaren kudeaketa, sexu-praktiketan segurtasuna, substantzien kontsumoa...), eta norberaren arrazoibideetan, eskuratutako eza- gutzetan eta eskura dagoen informazioan oinarrituz.</p>	
--	--	--	---	--

		HK4 eta EK1		
HIRUGARREN HIRUHILEKOA				
Landareak	Natura Zientziak	<p>3. Informazio eta datu zientifikoak interpretatzea eta transmititzea, eta horien buruzko argudioak ematea, hainbat formatu erabiliz zientzien kontzeptuak eta prozesuak aztertzeko.</p> <p>HKK1, HKK2, HKK5, STEM4, STEM6, KD2, KD3 eta KAKK4.</p> <p>6. Ekintza jakin batzuek ingurumenean eta osasunean dituzten ondorioak aztertzea, zientzien funtsetan oinarrituz, garapen iraunkorarekin bateragarriak diren eta planetaren osasun individuala eta kolektiboa mantentzea eta hobetzea ahalbidetzen duten ohitura arduratsuak</p>	<p>3.1 Kontzeptuak definitzea, eta fenomeno eta prozesu zientifikoak deskribatzea, informazioa hainbat formatutan aztertuz (ereduak, grafikoak, taulak, diagramak, formulak, eskemak, sinboloak, web-orriak...), jarrera kritikoa mantenduz eta ondorio arrazoituak eskuratuz.</p> <p>3.2. Informazio zientifikoa modu argian komunikatzea, hizkuntza-egitura, terminologia eta formatu egokiak erabiliz (ereduak, grafikoak, taulak, bideoak, txostenak, diagramak, formulak, eskemak, sinboloak, eduki digitalak...).</p> <p>6.1 Ekintza jakin batzuek ingurumenean eta izaki bizidunen osasunean dituzten ondorioak ezagutzea, zientzien oinarriak eta irizpide zientifikoak aplikatuz.</p> <p>6.2 Biodibertsitatea babestearen, ingurumena zaintzearen, inguruneko izaki bizidunak babestearen, garapen iraunkoraren eta bizikaltatearen garrantziaz argudiatzea, datu eta arrazoi zientifikoak erabiliz.</p>	<p>B. Materia: Materia bizia eta ez-bizia.</p> <p>Izaki bizidunak:</p> <p>Domeinuak eta erreinuak.*</p> <p>Talde taxonomiko nagusiak: inguruneko espezieen behaketa eta sailkapena, euren ezaugarri bereizgarrietatik abiatuta.*</p>

		<p>sustatzeko eta hartzeko.</p> <p>STEM2, STEMS, KD4, KPSII1, KPSII2, HK3, HK4 eta EK1</p>		
Animaliak	Natura Zientziak	<p>3. Informazio eta datu zientifikoak interpretatzea eta transmititzea, eta horiei buruzko argudioak ematea, hainbat formatu erabiliz zientzien kontzeptuak eta prozesuak aztertzeko.</p> <p>HKK1, HKK2, HKK5, STEM4, STEM6, KD2, KD3 eta KAKK4.</p> <p>6. Ekintza jakin batzuek ingurumenean eta osasunean dituzten ondorioak aztertzea, zientzien funtsetan oinarrituz, garapen iraunkorarekin bateragarriak diren eta planetaren osasun indibiduala eta kolektiboa mantentzea eta hobetzea</p>	<p>3.1 Kontzeptuak definitzea, eta fenomeno eta prozesu zientifikoak deskribatzea, informazioa hainbat formatutan aztertuz (ereduak, grafikoak, taulak, diagramak, formulak, eskemak, sinboloak, web-orriak...), jarrera kritikoa mantenduz eta ondorio arrazoituak eskuratuz.</p> <p>3.2. Informazio zientifikoa modu argian komunikatzea, hizkuntza-egitura, terminologia eta formatu egokiak erabiliz (ereduak, grafikoak, taulak, bideoak, txostenak, diagramak, formulak, eskemak, sinboloak, eduki digitalak...).</p> <p>6.1 Ekintza jakin batzuek ingurumenean eta izaki bizidunen osasunean dituzten ondorioak ezagutzea, zientzien oinarriak eta irizpide zientifikoak aplikatuz.</p> <p>6.2 Biodibertsitatea babestearen, ingurumena zaintzearen, inguruneko izaki bizidunak babestearen, garapen iraunkoraren eta bizi-kalitatearen garrantziaz</p>	<p>B. Materia: Materia bizia eta ez-bizia.</p> <p>Izaki bizidunak:</p> <p>Domeinuak eta erreinuak.*</p> <p>Talde taxonomiko nagusiak: inguruneko espezieen behaketa eta sailkapena, euren ezaugarri bereizgarrietatik abiatuta.*</p> <p>Sentitzen duten izakiak: ornodunak. Zefalopodoak eta hainbat artropodo.</p> <p>Sentsibilitatea eta sentiberatasunaren arteko desberdintasunak.</p>

		<p>ahalbidetzen duten argudiatzea, datu eta arrazoi zientifikoak erabiliz.</p> <p>ohitura arduratsuak erabiliz eta hartzeko.</p> <p>STEM2, STEMS, KD4, KPSII1, KPSII2, HK3, HK4 eta EK1</p>	
Ekosistemak	Natura Zientziak	<p>3. Informazio eta datu zientifikoak interpretatzea eta transmititzea, eta horiei buruzko argudioak ematea, hainbat formatu erabiliz zientzien kontzeptuak eta prozesuak aztertzeko.</p> <p>HKK1, HKK2, HKK5, STEM4, STEM6, KD2, KD3 eta KAKK4.</p> <p>4. Behaketak galdera moduan adieraztea, hipotesiak formulatzea eta hipotesi horiek esperientazio zientifikoaren bidez frogatzea, eta ikerketa-proiektuak garatzea,</p>	<p>3.1 Kontzeptuak definitzea, eta fenomeno eta prozesu zientifikoak deskribatzea, informazioa hainbat formatutan aztertuz (ereduak, grafikoak, taulak, diagramak, formulak, eskemak, sinboloak, web-orriak...), jarrera kritikoa mantenduz eta ondorio arrazoituak eskuratuz.</p> <p>3.2. Informazio zientifikoaren modu argian komunikatzea, hizkuntza-egitura, terminologia eta formatu egokiak erabiliz (ereduak, grafikoak, taulak, bideoak, txostenak, diagramak, formulak, eskemak, sinboloak, eduki digitalak...).</p> <p>4.1 Egiatzatzeko modukoak diren galderak eta hipotesiak planteatzea, metodo zientifikoak erabiliz eta fenomeno naturalak azaltzen eta horiei buruzko iragarpenak egiten saiatuz</p> <p>C: Interakzioa eta Energia</p> <p>Ekologia jasangarritasuna:</p> <p>Inguruneko ekosistemak, horien osagai biotikoak eta abiotikoak, eta erlazio intraespezifiko eta interespezifiko motak.*</p> <p>Ekosistemen kontserbazioaren, biodibertsitatearen eta garapen iraunkorreko eredu bat ezartzearen garrantzia.*</p> <p>Ohitura jasangarrien garrantzia (kontsumo arduratsua, hondakinen kudeaketa, ingurumenaren errespetua...)*</p>

		<p>metodologia zientifikoaren urratsei jarraituz zientziekin zerikusia duten alderdiak arakatzeko.</p> <p>HKK1, HKK2, STEM2, STEM3, STEM4, STEM6, KD1, KD2 KPSII3, KPSII5, EK1 eta EK3</p> <p>6. Ekintza jakin batzuek ingurumenean eta osasunean dituzten ondorioak aztertzea, zientzien funtsetan oinarrituz, garapen iraunkorarekin bateragarriak diren eta planetaren osasun indibiduala eta kolektiboa mantentzea eta hobetzea ahalbidetzen duten ohitura arduratsuak sustatzeko eta hartzeko.</p> <p>STEM2, STEMS, KD4, KPSII1, KPSII2, HK3, HK4 eta EK1</p>	<p>4.4. Esperimentazioaren, behaketaren eta ebidentzia zientifikoaren bidez lortutako informazioa eta ondorioak aurkeztea, formatu analogiko eta/edo digital egokia erabiliz (taulak, grafikoak, txostenak, etab.).</p> <p>6.1 Ekintza jakin batzuek ingurumenean eta izaki bizidunen osasunean dituzten ondorioak ezagutzea, zientzien oinarriak eta irizpide zientifikoak aplikatuz.</p> <p>6.2 Biodibertsitatea babestearen, ingurumena zaintzearen, inguruneko izaki bizidunak babestearen, garapen iraunkoraren eta bizi-kalitatearen garrantziaz argudiatzea, datu eta arrazoi zientifikoak erabiliz.</p> <p>6.5 Inguruneko paisaia eta ekosistemak interpretatzea, bertako elementuak aztertuz eta giza ekintza jakin batzuen inguru-men-inpaktuari buruz hausnartuz.</p>	
--	--	--	--	--

Erabaki metodologikoak

Estrategiak eta metodoak, hizkuntzen tratamendua, IDU, ikasleen eta irakasleen antolamendua, espazioen eta baliabideen erabilera, etab.

Estrategiak eta metodoak:

Gai bakoitzaren hasieran, hasiera ebaluazioa egingo da ahoz ikasleek dakitenaz jabetzeko eta hortik abiatuz gai berriaren aurkezpena egingo da. Gaiak proiektu bat garatuz edo irakasleak prestaturiko txostena jarraituz landuko dira.

- Azalpenak klasean IKT baliabide ezberdinekin (aurkezpenak, bideoak, eskemak..) lagunduko dira. Irakasleek eginiko txostenak irakurri eta ideia garrantzitsuenak azpimarratu eta osatu egiten dira aldi berean. Txosteneko ariketak eta ariketa gehigarriak ere egiten dira talde lanean edo bakarka.
- Gai bakoitzaren bukaeran ebaluazio ariketak, KAHOOT lehiaketak eta gaiaren eskemak ere egiten dira.
- Esperimentazioaren bidez klasean landutakoa ulertu eta finkatu egiten da. Laborategian zientzia-esperientziak garatzen dira, metodo zientifikoa aplikatuz. Esperientzia bakoitzean jarraitutako behaketa, azterketa eta arrazonamendu prozesuak, laborategi txostenean islatzen dira.
- Klasean landutakoa finkatu edo errepasatzeko ikasleek noizbehinka klasean hasitako ariketak bukatu, sendotze ariketak egin, informazioa bilatu, eskemak egin edo laborategirako txostenak prestatu beharko dituzte.
- Lehen ebaluazioan zehar unibertsoaren gaiari buruzko zenbait atal azalduko dituzte ikasleek, talde txikietan lan kooperatiboa egingo dute eta gaur egungo zientzia albiste bat oinarri hartuta. Albistea irakurri, aztertu eta gaiari buruzko informazioa bilatu ostean ikaskideen aurrean aurkeztuko dute, beraien galderak erantzunez. Lana bideratzeko zenbait informazio iturri ezberdin aurkeztuko zaizkie ikasleei.

Erabiliko diren espazioak:

Ikasgai honetan klasea emateko erabiliko den ohiko tokia haien ikasgela izango da. Bertan, ikasleak binaka kokatuta egongo dira tutoreak zehazten dituen tokietan. Horretaz gain, jarduera batzuk aurrera eramateko laborategi gela ere erabiliko da, adibidez harri eta mineralen identifikaziorako.

TBL (ThinkingBasedLearning) saioak:

Gai bloke bakoitzean edukiak garatzeko, "pentsamendu trebezia" desberdinak erabiltzen dira: konparatu kontrastatu, iragarpena, arazo konponketa, beheranzko sailkapena, etab. Ariketa mota hauek ikasleen pentsamendu kritikoa garatzen laguntzen dute.

IDU (Ikaskuntzaren Diseinu Unibertsala):

Ikasleei informazioa eta ezagutza eskuratzeko baliabide desberdinak emango zaizkie eta haiei lana eskatzerakoan ere, zenbait jardueretan, formatu desberdinetan aurkezteko aukera emango zaie. Ikasleen interesak aprobetxatzeko bideak erabiliko dira, ikasgaia ikastera motibatuzeko konpromezua hartu dezaten. Ikasleen autonomia bultzatuko da.

Irakurketa plana:

Zientziarekin lotutako testuak irakurriko dira jarduerak burutzeko edota informazioa eskuratzeko. Gainera, gaiekin lotutako zenbait zientzialariren biografia aztertuko da.

Irteerak:

Ikasturtean zehar irteera desberdinak egingo dira klasean landutakoa finkatzeko eta garapen jasangarriaren beharraz ohartzeko: **Ekoetxea Meatzaldea-Peñas Negras**-era irteera eta Lauroetako ibaiaren azterketa (**Ibailde programa**).

Ebaluazioari, haren ondorioei eta kalifikazio-irizpideei buruzko erabakiak

Ebaluazioa	Ebaluazioaren ondorioak:	Kalifikazio-irizpideak
<ul style="list-style-type: none"> • <i>Helburua (formatiboa, akreditatzailea)</i> • <i>Finkatutako denborak (hasieran, prozesuan zehar, amaieran)</i> • <i>Ebaluatzeko teknikak, tresnak eta erramintak</i> • <i>Eragileak (autoebaluatzea, elkarri ebaluatzea eta heteroebaluatzea)</i> 	<ul style="list-style-type: none"> • <i>Kalifikazioa</i> • <i>Programazio didaktikoaren berrikuspena eta doitzea</i> • <i>Errefortzu-neurriak hartzea, egokitzeko neurriak hartzea, curriculum zabaltzeko eta aberasteko proposamenak</i> • <i>Berriazko programatan parte hartzea.</i> • <i>Etab.</i> 	<p>Ikastetxearen autonomiaren baitan, curriculumaren hainbat erabaki curricular hartuko dira, hala nola:</p> <ul style="list-style-type: none"> ○ <i>Ikas-maila bakoitzerako lorpen-mailak erabakitzea</i> ○ <i>Ebaluazio irizpideen jardun maila adostea.</i> ○ <i>Gaitasunen garapen-maila adostea</i> ○ <i>Berriazko gaitasunen ponderazioa, ebaluazio-irizpideak... definitzea)</i>

		o etab.
<p>Ebaluazioa formatiboa izango da, izan ere, ibilbide didaktiko osoan zehar datuak biltzea eta partekatzea du helburu, eta akreditatzailea, aurretik ezarritako helburuak zein neurritan lortu diren zehazteko.</p> <p>Hasierako ebaluazioa: Kurtso hasieran galdetegi baten bidez eta, gero, ikas-egoera guztien hasieran galderen bitartez ikasleen aurrezagutzak bilduko dira.</p> <p>Ebaluazio jarraia: Ikaskuntza prozesuarekin batera ikas-egoera guztietan egiten dena da. Honek ikasleen zailtasunez eta aurrerakuntzez ohartarazteko balio du.</p> <p>Amaierako ebaluazioa: Prozesua bukatzerakoan egiten den ebaluazioa da. Honen bidez kalifikazioa finkatu eta hobekuntzarako beharrezkoak diren gomendioak egiten dira.</p> <p>Ebaluatzeko teknikak, tresnak eta erremintak:</p> <ul style="list-style-type: none"> ● Froga idatziak: ebaluazioan gai bakoitzeko azterketa bat egingo da non ebaluazioan landutakoa ikasleak bereganatu duen behatuko da galdera mota ezberdinak erabiliz, hala nola, definizioak, garatzeko galderak, harremantzekoak, egia ala gezurrezkoak, ariketak eta abarrekoak. Horiek ereduaren bidez baloratuko dira. ● Moodle bidezko galdetegiak, gai bakoitzeko egingo direnak. 	<p>Natura Zientziak, funtsezko konpetentzien garapenari laguntzen dio eta, bereziki, STEM konpetentziaren garapenari eta euren lorpen maila neurtzen joango gara.</p> <p>Hiru ebaluazio egongo dira eta bakoitzak kurtso bukaeran balio berdina izango du, hauetariko batean suspentsoa izatekotan ez da hiruren artean batzbestekoa egingo eta hirugarren ebaluazioaren bigarren ardatzean aukera egongo da suspenditutakoa berreskuratzeko.</p> <p>Ebaluazioa gainditu ez duten ikasleei, berrikasketa plan bat bideratuko zaie:</p> <p>Ariketa txosten bat banatuko zaie ebaluaketa bukatu bezain laster (indartze ariketak) etxean landu dezaten. Irakasleak ikasleak izandako dudak argituko ditu, klase orduetan edo bestela ikaslearekin adostutako beste momentu batean. Azkenik, froga bat egingo zaie ebaluaketa hori berrikasi ahal izateko.</p> <p>Berrikasketako azterketa %95-ean baloratuko da (%5 era autonomoan txostena egin duen eta irakasleari dudak planteatu dizkion kontuan hartuko da). Ebaluazioan zehar egindako lanen bat ez badu aurkeztu ere egin, orain aurkeztu beharko du.</p> <p>3.ebaluazioan ere, besteetan bezala, berrikasketa azterketa egingo da.</p> <p>Aurretik esan bezala, ebaluazio bat (1. edo 2.a) oraindik gainditu gabe duten ikasleek, kurtsoa</p>	<p>1.ebaluazioa:</p> <p>% 70 STEM:</p> <p>GEOLOGIA: Harriak eta mineralak % 60</p> <p>Atmosfera % 40</p> <p>% 10 HKK Unibertsoari buruzko gaiak lantzea eta informazio zientifikoa modu argian komunikatzea, hizkuntza-egitura, terminologia eta formatu egokiak erabiliz.</p> <p>% 20 KPSII:</p> <p>Ikasketa teknika desberdinen erabilpena: eskemak, galdetegiak, etab. % 50</p> <p>Pentsatzen jakitea: POI: Ikaste-jarduera ezberdinei ekiterakoan Pentsamenduan oinarritutako ikaskuntzaren ikasgaien bidez pentsamendu eraginkorra barneratu. % 50</p> <p>2.ebaluazioa:</p> <p>% 70 STEM:</p> <p>Hidrosfera % 20</p> <p>Izaki Bizidunak % 50</p> <p>Moneroak, protistoak eta onddoak % 30</p> <p>% 10 KD Tresna digitalak erabiliz informazio zientifikoa adieraztea (eskema)</p> <p>% 20 KPSII:</p>

<ul style="list-style-type: none"> ● Behaketa zuzena: ea gelan parte hartzen duen, irakasleak egindako galderei erantzun zuzenak emanez, dudak planteatuz eta talde lanean era autonomoan parte hartuz. ● Taldekako zein bakarkako lanak: taldekako zein bakarkako lanak ebaluatzeko mota ezberdinetako tresnak erabiliko dira, hala nola, laborategi txostenak, infografiak, bideoak, aurkezpenak, eskemak edota maketak. Horien maila errubriken bidez graduatuko da. Taldekako lanean autoebaluzioa eta koebaluzioa ere egingo da errubriken bidez. ● POI ariketak: ebaluzio bakoitzeko bi edo hiru ariketa puntuagarri egingo dira. 	<p>gainditzeko azken aukera bat izango du, ebaluzio horren berrikasketa azterketa baten bitartez.</p> <p>Ebaluzio guztietan 4 edo 4 baino nota altuagoa lortu badu, hiru ebaluzioen batzbestekoa egingo zaio eta gainditua emanez gero, kurtsoa gaindituta izango du.</p> <p>Aurreko urteko ikasgaia gainditzeko aukera berezia izango dute irailaren bukaera aldera udarako txostenaren gainean. Noski aurretik txostena egin eta entregatzea eskatzen zaie aukera hau izateko.</p> <p>Azterketa hori gaindituz aurreko ikasturteko ikasgaia gaindituta gelditzen da.</p> <p>Azterketa hori ez gainditzekotan:</p> <ul style="list-style-type: none"> ● Ebaluzio bakoitzeko txosten bat emango zaie eta irakasleak ezarritako datan entregatu beharko dute. ● Zuzendaritzak jarritako data ofizialean azterketa bat egingo dute. 	<p>Ikasketa teknika desberdinen erabilpena: eskemak, galdetegiak, etab. % 50</p> <p>Pentsatzen jakitea: POI: Ikaste-jarduera ezberdinei ekiterakoan Pentsamenduan oinarritutako ikaskuntzaren ikasgaien bidez pentsamendu eraginkorra barneratu. % 50</p> <p>3.ebaluzioa:</p> <p>% 70 STEM:</p> <p>Landareak % 40</p> <p>Animaliak % 40</p> <p>Ekosistemak % 20</p> <p>% 10 EK: Ekosistemen proiektua.</p> <p>% 20 KPSII:</p> <p>Ikasketa teknika desberdinen erabilpena: eskemak, galdetegiak, etab. % 50</p> <p>Pentsatzen jakitea: POI: Ikaste-jarduera ezberdinei ekiterakoan Pentsamenduan oinarritutako ikaskuntzaren ikasgaien bidez pentsamendu eraginkorra barneratu. % 50</p>
---	--	---